

# Elikadura zerga

Jakina da, osasun publikoaren arazo larrienetakoa elikaduraren kalitate txarra da. Arazo hori da dagoeneko, munduko gaixotasunen eta bizi kalitatearen galeraren arrazoi nagusia. Gaur egungo elikadura ereduak gero eta gehiago gaixotzen gaitu. Azken bi hamarkadetako dieta aldaketa dago horren atzean, izan ere, egun jaten dugunetik ia hiru laurdenak janari prozesatuak dira. Euskal Herrian, mendebaldeko beste herri industrializatuetan bezala, azukre, koipe kaltegarri eta gatzaren gehiegizko kontsumoa dago. Arrazoia ez da hainbeste norberak egiten duen hautua, elikaduraren industriaren izugarritzko boterea baizik. Izan ere, botere erraldoi horrek elikagaien ekoizpen eta kontsumo sistema baldintzatzen du eta erabaki politikoetan sarbide zuzena du.

Elikadura eredu horrek baditu gutxienez bi ondorio aipagarriak osasun arlo estuaz harantz, baita arlo sozioekonomikoan ere. Lehenik, elikadura eredu kaltegarriak osasun sistema publikoaren aurrekontuan eragin du. Munduko Osasun Erakundearen (MOE) arabera, elikagai kaltegarrien kontsumoak erantzukizuna dauka gaixotasun kardiobaskularren, diabetesen kasuen erdietan eta minbizi mota batzuetako beste horrenbestetan. Horrek osasun sistema publikoan eta bere aurrekontuan eragin ikaragarria du, MOEren estimazioak aurrekontuaren %20raino igotzen du eragin hori.

Gainera, eraginaren tamaina desberdina da pertsonaren errenta mailari erreparatzen badiogu. Janari osasungarria, ekologikoa edo kalitatezkoa elikagai prozesatuekin alderatuta garestiagoa da, beraz, errenta apaleko jende gero eta ugariagok ezin du osasuntsuagoa den elikagairik ordaindu. *Overseas Development Institut* erakundearen txosten batek bost herrialde-



Mikel Zurbano  
EHU-KO IRAKASLEA

*Overseas Development Institut* erakundearen txosten baten arabera, fruituen eta barazkien prezioek urteko batez beste %2 eta %3 bitarteko igoera izan dute sasoi honetan, aldiz, elikagai prozesatu gehienen prezioa apalagoa da hogeita bi urte hauen buruan. Bilakaera hori ikusita, Espainiako Estatuko biztanleriaren ia erdiak eta Hego Euskal Herriko herenak baino gehiagok ezin ditu elikagai osasuntsuak ordaindu

ko bi elikagai moten prezio bilakaera aztertu du 1990-2012 urteen aldian. Fruituen eta barazkien prezioek urteko batez beste %2 eta %3 bitarteko igoera izan dute sasoi honetan, aldiz, elikagai prozesatu gehienen prezioa apalagoa da hogeita bi urte hauen buruan. Bilakaera hori ikusita, Espainiako Estatuko biztanleriaren ia erdiak eta Hego Euskal Herriko herenak baino gehiagok ezin ditu elikagai osasuntsuak ordaindu. Gainera, azterketan ez dira sartzen garestiagoak diren elikagai ekologiko edo biologikoak. Ondorioz, errenta apaleneko pertsonak saihesgarriak diren gaixotasunak sarriago izatera kondenatuta daude.

Elikagaien merkatuaren eragin sozial horri aurre egiteko, beste neurri batzuen artean, elikadurarako zerga politika tresna egokia izan liteke. Elikadura osasuntsua saritzea eta kaltegarria zigortzea litzateke zerga politika horren bidea, betiere, politika sozio-sanitario publiko eta berdinzalearekin koherentea dena eta errenta gutxiko populazioak elikagai osasuntsuak eskuragarri izateko helburua lehenetsita.

Neurri hori ez da berria. MOEren Elikadurari eta Nutrizioari buruzko Europarako Ekinbide Planak (2015-2020) elikagaien erosketan eragina izan dezaketean prezio eta zerga politikak lehenesten ditu. Erresuma Batuan elikagai gehienen Balio Erantsiaren Zerga zero da, aldiz, freskagarriena, zizka-mizka gatzatuena edo zuku azukredunena %20. Coca-Cola eta azenariok zerga zama bera izatea ulergaitza da osasunaren ikuspegitik. Elikadura kaltegarriaren eragina ezkutukoa izateak ez du esan nahi osasun publikorako arazoa ez denik. Zerga politikak ere zuzentzea beharrezkoa da hurrengo belaunaldiak kondenatu nahi ez baditugu. Interes orokorra elikagai industriaren interesen gainetik egotea nahi badugu bederen. ■